

MANIFESTUA

Zuzenbidearen arlo ezberdinetan aritu eta manifestu hau sinatzen dugunok, otsailak 28ko 197/06 ebazpena egonkortuz eta Auzitegi Gorenak hasiera emaniko doktrinari jarraiki Auzitegi Konstituzionalak berrikitan hartutako erabakiei gure gaitzespen erabatekoa azaldu nahi diegu.

Aipatu ezeztapena honoko arrazoietan datza:

- Giltzapetuen askatasun eskubidearen aurkako eraso zuzena baino ez dena berretsi du Auzitegi Konstituzionalak.

- Dagoeneko indargabeturiko Zigor Kode zaharrak espetxeratutakoen zigorrak luzatzea dakarren auzi ezin garrantzisuago honi ekin beharrean, Auzitegi Konstituzionalak biribil juridiko bat burutu du, esannahi konstituzionalik gabeko afera dela azalduz. Honela, askatasun oinarritzko eskubideari eragiten dion galdera -alegia, zigorrari aplikatu lekiokkeen lanaren bitarteko espetxe onuren inguruko interpretazio berria- erantzuteke utzi du Auzitegi Konstituzionalak, Gorenaren interpretazioa ontzat ematen badu ere.

- Auzi hau errotik hartzeari itzuri egiteak azalpen bakarra dauka: doktrina beraren ahulezia. Izan ere, esannahi bakarreko interpretazio baketsuak urte luzez iraun ondoren, arintasun juridikoa oinarri duen kontrako doktrina nagusitu da bapatean .

- Auzitegi Konstituzionalak ontzat emaniko doktrina honek legalitateari zein segurtasun juridikoari dagozkien eskubideak urratzen ditu, eta ondorioz, funtsezkotzat jotzen dugun askatasunarena ere:

- Alde batetik, jada indargabeturik zegoen araua (1973ko Zigor Kodearen 70.2 artikulua, hain zuzen) berrirakurtzen du doktrina honek. Izan ere, ez aipatu Kodearen testu birmoldatuan aurreikus, ez inolako espetxe arauditan ere ezin aurki zitekeen esamolde berritsua bereganatu duenez gero (espetxean betetzeko zigor gehiena), oraingo interpretazioak ez du inolako zerikusirik arau hori indarrean egon zenekoarekin.

- Beste aldetik, eta doktrina berriaren bapatekotasuna kontutan hartuz, bere zigorra bete eta berriro aske izateko ikusminak zituen presoak ezin zuen honelako doktrinarik ez espero ez aurreikusi ere egin.

- Ildo beretik, Konstituzionalaren erabakiak segurtasun gabezia ezartzen dio zigor araudiari, Zuzenbidearen aplikazioa bidegabekeria oinarrituz.

Aurreko gogoetak kontutan harturik, kezka handia ere sortzen digute honokook:

- * Goi-mailako auzitegien ebazpenek iragazkortasun erabatekoa erakusten dute motibazio, helburu edota izaera guztiz politikoa duten erabaki edo erizpideekiko.

- * Batik bat azken urteotan, eta bereziki zigorrak betetzeko orduan, Zigor eta Espetxe Zuzenbideak aplikazioaren desbideraketa jasan du, berreziketa edo bergizarteratze ikuspegiaren ordean exenplarizazioa eta mendekua lehenetsiz.

- * Azken urteotan ere, "etsaiaren Zuzenbide" delakoruntz abiapuntutzat jo daitekeen Zuzenbide "ad hoc"-a egonkortzen joan da, Zuzenbide Estatuaren oinarriak zokoratuz.

- * Zigor zein espetxe arloetan ezagutu diren erreforma etengabeak -batez ere zigorren betetzeari eta presoaren bergizarteratzeari dagozkienean- "delituaren biktima asetzea" bilatu dute, delituaren desagertze edota jazarpena lehenetsi beharrean. Honela, funtsezko eskubideak urratuz eta defentsa-gabezia eraginez, aipatu erreformek Zigor Zuzenbidearen aplikazioa gupidagabe bezain jasangaitz bilakatu dute.

Azkenik, oso esanguratsu deritzogu Estatu espainiarreko Fiskal Orokorrak Auzitegi Konstituzionaleko fiskala gisa aritu denean hainbat txostenetan azaldu duenari, eta honexegatik azpimarratu nahi genuke hemen. Alegia, beren zigorrak trinkotu ostean 2006rako jada betetzen zeuden presoek Auzitegi Gorenaren doktrina berria aplikatzeak gutxieneko babes judiziala kendu die, aldi berean epai irmoen ukiezintasun oinarria atziz. Azkenean, zigor arau kaltegarrien atzeraeraginarik eza eta legezkotasun oinarria erasotuz, askatasun eskubidea bera izan da erasotua.

Azpimarragarria ere da osoz, bai Auzitegi Goreneko eta bai Konstituzionaleko kide ugari interpretazio berriaren aurka agertu izana beren bozka partikularretan, doktrina honek askatasun edota legezkotasunaren oinarriak ez ezik segurtasun juridikoa ere urratzen duela azaldu dutelarik.

Testoinguru honetan, Auzitegi Gorenak emandako 197/2006 epaia, Auzitegi konstituzionalak berretsi izanaren kontra agertu nahi dugu, baita doktrina beraren ezartzearen kontra ere, oinarritzko eskubideak eta zuzenbide estatuaren zutabe izan beharko luketen printzipioen kontra jotzen duelako

